

AIARALDEA

Jaietan



URDUÑA



plaza Patxi eta konpaniarekin Foru plazan

05.07
Astelehena
20:00 // Berbena Joselu Anaiak taldearekin Foru plazan

05.08
Asteartea
"ANTIGUAKO"
ANDRA MARIEN JAIA
10:30 // Agintarien segizio desfilea
11:00 // Meza nagusia

12:30 // Batibomba eta buruhandiak askatzea
13:30 // Kantu poteoa eta kale animazioa
14:30 // Haurrentzako herri bazkaria Gernika plazan
16:30 // Haurrentzako ikuskizuna gelo trompalarirekin
18:00 // Haurrentzako berbena

05.10
Osteguna
ADINEKOEN EGUNA
12:30 // Nagusien omenezko meza Andra Mari parrokian
14:30 // Bazkaria hiriko adineko pertsonentzat

13:00 // Kantu-kalejira
15:00 // Herri bazkaria
17:00 // Musika girotzea
18:00 // Herrialde mailako bolo jaurtiketa
18:30 // Aurreku eta fandango lehiaketa
22:00 // MR Pongo Banden kontzertua
23:30 // Radio Revolucioen kontzertua
01:30 // DJ Isma

05.13
Igandea
09:00 // V. Mendi Martxa txikia
11:00 // Herrialdeko bolo jaurtiketa

Glaukomak eta Radio Revolucioneak dantzan jarriko dituzte otxomaioak



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Aurkeztu dute aurtengo Otxomaioen programa. Adin guztientzako egitarau oparoa osatu dute jaiak iraungo duten 10 egunetarako. Orotara 70 ekintza baino gehiago egongo dira, eta musikak izango du protagonismo nagusia. Besteak beste, Glaukoma taldeak joko du Foru Plazako oholta gainean. Horrez gain, ez dira faltako kale-animazioa, antzerkiak, herri-bazkariak edota zezenketak.

Maiatzaren 4an, ostirala, emango diote hasiera 2018ko Otxomaio jaiak. Aintzane Okeranzak izango du txupinazoa botatzeko ohorea. Oso ezaguna eta maitatua da Okeranza Urduñan, hiriko lorategiak zaintzen egiten duen lan boluntarioagatik batez ere. Pregoia irakurtzeaz, aldiz, Urduñako Gazte Asanbladako kideak arduratuko dira. Gazte Asanbladak 20. urteurrena ospatu du aurten eta pregoilari izateko herri galdeketa boto gehien lortu dituen eragilea izan da.

Ivan Fandiño gogoan

Omenaldi berezia egingo diote Ivan Fandiño toreatzaile urduñarrari Otxomaioen testuinguruan. 2017ko ekainean zendu zen Fandiño, zezen baten adarkadaren ondorioz. Apirilaren 28an abiatuko dira bere omenezko ekitaldiak Familia Sakratuaren elizan egingo den kontzertu eta dantza erakustaldiarekin.

Maiatzaren 6an izango dira toreadore urduñarraren aldeko ekitaldi nagusiak: bere omenezko eskultura inauguratuko da eta bazkaria egongo da Aduanako bainuetxe-hotelean.

05.04
Ostirala
TXUPINAZOA
21:00 // Txupinaren jaurtiketa eta kalejira
22:00 // Berbena Luhartzekin
01:30 // Parranda DJ gaua

05.05
Larunbata
09:00 // Haurren XIX. Arrantza Lehiaketa
10:30 // XI. Patata Tortila txapelketa eta VI. Paella Lehiaketa
17:00 // IV. "Otxomaio 2018" Mus azkar txapelketa
18:00 // Euskal dantza alardea
18:00 // "Memorial Iván Fandiño" profesionalen eskupilota partidak
20:00 // Dantzaldia Santa Zezilia bandarekin
20:30 // Builaka batukada hiriko kaleetatik
20:30-23:30 // Beldur barik gunea
22:30 // Suaia eta Ama Rebelen kontzertua Foru plazan
00:30 // Glaukoma

02:15 // DJ Tarantistak

05.06
Igandea
09:00 // Ohiko XXXVII. Pil-pil erako bakailao lehiaketa.
12:30 // Kalejira erraldoi eta buruhandiekin
13:00 // Kale-antzerkia Ganso & ciarekin Gernika plazan: "Babo royal".
17:30 // Ivan Fandiñoren omenaldia, zezen plazan
18:00 // Taekwondo erakustaldia frontoian
19:00 // Dantza

12:00 // Buruhandiak askatzea
13:00 // Urduñako abesbatzak abestutako meza
13:15 // Kontzertua Santa Zeziliaren eskutik
13:30 // Kale animazioa
18:00 // Kaleko antzerki-zirkoa
20:00 // Berbena Kosmosekin

05.09
Asteazkena
UMEEN EGUNA
11:00-14:30 // Puzgarri parkea eta gynkana Foru plazan
11:30 // Arrastariako agintarien erromesaldia
12:00 // Meza

17:00 // Antzerkia Hamaika taldearekin: "Semillas del pasado", Erretiratuen Klubeko egoitzan
18:00 // Mintzodromoa

05.11
Ostirala
17:00 // Hiruko eta jaurtiketa libre lehiaketa frontoian
19:00 // Saskibalo partida, 2. maila autonomikoa
20:30 // VII. Playback Lehiaketa Foru plazan
22:00 // Koadrilen afaria
23:30 // Akerbeltz

05.12
Larunbata
09:30 // Zaldikoen harrera

11:00 - 14:00 // Rokodromoa eta tirolina
11:30 // Saratxoko auzokideei harrera
12:00 // Meza nagusia eta saratxoarren botoaren berritzea
12:00 // Poni eta zaldietan ibiltzeko doaneko aukera haurrentzat
12:30 // Kalejira erraldoi eta buruhandiekin
17:30 // Eskupilota partidua
18:00 // Iñaki Plaza eta bere ikasleen kontzertua
20:30 // Musika girotzea Akelarre txarangarekin.
20:45 // Jaien agur-desfilea
21:30 // Bihotzaren erreketak

Mugalde LIBRE
Epaiketa politikorik ez!
TXUPITOKAK 1,8€
Egunero 24:00etatik 2:00ak arte
Gora Otxomaio!
Kale barria, 20 - Tel: 945 38 42 47

HOTEL ORDUÑA PLAZA



OTXOMAIO MENUA erreserba egin ezazu

Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38
info@hotelordunaplaza.com

Ostatua · Jatetxea · Bainuetxea
Gimnasioa · Ekitaldien antolakuntza



URDUÑA

“Kalean egoteko ohitura daukat, eta Otxomaioetan ere kalean egongo naiz”

AINTZANE OKERANZA VILLATE (Delika, 1953) HAUTATU DUTE AURTENGO OTXOMAIO JAIETAKO TXUPINERA IZATEKO.

Aurtengo Otxomaioetako txupinera izateko hautatu zaituzte. Nola jaso zenuen berria?

Hasieran apur bat urduri jarri nintzen. Zerbait entzuna nuen, baina ez nuen sinesten. Denboratarte bat eman zidaten pentsatzeko eta gero esan nuen baietz, animatuko nintzela suziria piztera.

Pozik orduan?

Orain bai, pozik nago. Pozgarria da horrenbeste jendeak ni proposatu izana.

Hiriko landareekin eginiko lanagatik hautatu zaituzte.

Lana utzi nuen senarra zaintzeko, eta zendu zenean ezin nintzen etxean geratu, kalera atera behar nuen. Orduan erabaki nuen hiriko lorategiak zaintzen hastea. Ez zegoen apenas landararik, ortuak baitzeuden jarriak. Baratze asko daude Urduñan, baina loreak ez horrenbeste. Zuhaitz asko jarri ditugu baita ere. Landareen zaintzaz arduratu gara batez ere, asko kostatzen zaielako lurra hartzea.

Non landatu dituzue lore eta zuhaitzak?

Foru plazan, jardineretan... edozein lekutan jartzen ditugu. Hiriko jendea ere animatzen da landareak zaintzera. Kostatu da, baina apurka lortu dugu.

Auzolanean egin duzue, beraz.

Bai, normalean lagun batek la-



guntzen nau: Mari Paz Robinak. Ez da txupinera izatera animatu, baina balkoira aterako da nirekin. Bien artean egin dugu lana, beste pertsona batzuen laguntza puntualarekin.

Baduzue toki gehiagotan jartzeko asmorik?

Leku berdinetan landatzen jarraituko dugu, baina lore eta zuhaitzak hobeto jarrita. Lorategi bertikal bat egin berri dugu, haizeak botatuko zuhaitz batzuen enborrak baliatuta. Oraindik ez dugu bertan lorerik jarri, eguraldia dela eta. Ea Otxomaioetarako jartzetik dugu!

Harresiaren atzean ere lore gehiago jarri nahi ditugu. Jendea kontzientziatu behar dugu oraindik. Loreak moztu daitezke, baina zuhaitzak eta landareak ez.

Nola bizi izan dituzu Otxomaioak orain arte? Aurtengoak bereziak izango direla uste duzue?

Ez dakit, ezberdinak izango direlakoan nago. Ni asko ibiltzen naiz kalean, eta jaietan ere kalean egongo naiz, nondik nora ibiliko naizen ez dakidan arren.

Txupinazoa pizterako orduan zerbait berezia egitea duzu buruan?

Gaszte Asanbladako kideekin hitz egiten egon naiz txupinazoa nola prestatu pentsatzeko. Alkaterekin ere harremanetan jarri naiz, nire laguntza behar duen jakiteko. Bereziak izango dira aurtengo jaiak. Urte berezia izan da aurtengoa, Tripontzia saria ere egokitu zait eta! Jendea animatu nahiko nuke kalera atera eta hiriko ekintzetan parte hartzera.

“Paradoxikoa da udalarekin borrokan egon ostean jaietako pregoia irakurtzea”

BEÑAT AGINAKO eta AINHOA JUNGUITU GAZTE ASANBLADAKO KIDEAK DIRA. AURTEN 20 URTE BETE DITU TALDEAK.



Bi hamarkada igaro dira Urduñako Gazte Asanblada sortu zenetik. Nola baloratzen duzue eginiko ibilbidea?

Guretzat oso urteurren berezia da honakoa, hogeigarrena. Aurretik lanean egon diren guztiei ere erreferentzia egiten diela uste dut. Ikusi da Urduñak gazte mugimendu indartsua izan duela historikoki. Ea hurrengo urteetan ere horrela jarraitzen duen.

Pregoilari izateko hautatu zaituztete. Pozik?

Ilusio nahiko sortu digun albiste izan da. Baina aipatu nahiko genuke ez dela asanbladaren oraingo belaunaldiaren lorpen bat izan soilik, 20 urte hauetan lanean egon diren guztiena baizik.

Paradoxikoa da epaiketetan egon eta udalarekin borrokan aritu ostean, herriko jaietako pregoia irakurtzea. Nik uste dut honek frogatzen duela denborak bakoitza bere lekuan uzten duela eta Gazte Asanbladaren tokia udaletxeko balkoia dela.

Pregoa nolako izango den aurreraterik?

Belaunaldi ezberdinetako jendea egongo gara. Suziria Aintzane Okeranzak pizteak kutsu polita emango dio ekitaldiari, beti izan dugulako gertuko harremana berarekin eta uste dugulako txupinera lanetan ederto arituko den pertsona izango dela.

ZUEN JAIETARAKO PREST!

HERRIKO JAIK, IKASTETXEAK, EZKONTZAK...



zerbikide

ESTALDIAK.EVENTOS

DISKODANTZA



djruba



DiskoFamily

Familia osoa dantzatzera!

KONTRATATU ZURE NEURRIKO JAIK

**WWW.ZERBIKIDE.COM
WWW.DISKODANTZA.COM**

**685 709 890
INFO@DISKODANTZA.COM**

Ciudad de Orduña
APARTAMENTU TURISTIKOAK

Ondo pasa jaietan!

6
APARTAMENTU
HIRIGUNEAN
Foru Plazan

Erregistro zenbakia:
E 311 687 692

INFORMAZIOA
ETA ERRESERBAK

www.apartamentosorduna.com
621 209 221
info@apartamentosorduna.com

BATZOKI!

BATZOKI ORDUÑA
Jose Maria Matias Blanco
Burgos Kalea, 20
48460 ORDUÑA (Euzkadi)
TEL: 945 38 39 26 - 685 27 24 40

Etxeko janarian espezializatua
Egin erreserba eta ospatu otxomaioak gurekin
Gora Otxomaio!

AIARA

Ostiralean hasiko dira Aiarako Jaiak, igandean amaitzeko



Arespalditza izango da jarduera gehien bilduko dituen tokia. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ostiralean -apirilak 27- hasiko dira Aiarako San Prudentzio Jaiak eta ospakizunez beteriko hiru egun egongo dira. Arespalditza izango da festaren epizentroa. Musikak (DJ Ruba, Lisker, Sukar, Patxi eta Konpainia taldeek), dantzek (zumbak, euskal dantzek), kirolek (pilotak, bolak) eta gastronomiak protagonismo guztia izango dute ostiralean, larunbatean eta igandean.

Aurtengo jaietan, berriro ere, berdintasunaren aldeko diskurtsoa landuko dute eta eskuragarri izango dituzte zapiak eta eskumuturrekoak indarkeria matxistaren kontra. Horrez gain, Beldur Barik Gunea jarriko dute.

Bestalde, Fundación Alday izango da aurtengo pregoilaria.

Elkarte horrek kudeatzen ditu Aiarako adinduen egoitza eta nagusien arretarako eguneko landa eremuko zentroa.

Autobus zerbitzua doan

Aiarako Udalak doako garraio publikoa prestatuko du, nahi duenak erabili dezan apirilaren 27an eta 28an, hau da, ostiral eta larunbat gauean.

Autobus bat Artziniegatik 20:30ean abiatuko da eta Menagarai eta Ibaguenen geldituko da, Arespalditzara jo aurretik. Beste autobus bat Laudiotik aterako da 21:20ean, eta Luiaondo, Amurrio eta Murgatik ere igaroko da.

Artziniegako busak goizeko lauretan egingo du bueltako bidea. Laudiokoa, aldiz, ordubate beranduago aterako da Arespalditzatik.

04.27 Ostirala

18:00-20:00 // Bolo-jokoa Luiaondoko bolatokian.
19:00 // Txupinazoa. Pregoilariaren agurra. Alday fundazioa. Portada-lehiaketako irabazleari saria emateko ekitaldia.
Txupinazo ofiziala pregoilariaren esku.
Luiaondoko txistulariak Prontxiri ongietorria.
Beldur barik gunea
19:30 // Aiaro Dantza Taldearen emanaldia.
Herriko txorizo-jana
20:00 // Fanfarrea Beti jairen kalejira
21:00-00:30 // Berbena Sukar taldearekin
00:30 // DJ Ruba

04.28 Larunbata

10:30 // Kalejira
11:00 // Eskualdeko produktuen azoka.
11:30-13:00 // Bolo-jokoa Luiaondoko bolatokian.
12:00 // San Prudentzioren omenezko meza.
12:30 // Izalde abesbatzen kontzertua.
13:00 // Haurren danborrada
13:00 // Barraskilo jana
16:00 // Duetloi Txikia
16:45 // Duetloi handia
19:30 // Zumba sesion -Izaskun Del Cerrorekin-
22:00 // Reverso musika-taldearen kontzertua
23:30 // Berbena Lisker taldearekin

04.29 Igandea

08:30 // Erakustxakurren Arabako IV. Irekia.
10:30 // Jesús Isasiren Omenezko XXXVIII. Txirrindularitza Txapelketa
11:00-13:00 // Bolo-jokoa Kexaako bolatokian.
Haur-parkea
12:00 // Adinekoen omenezko meza
12:30 // Eskutxiko Ahotsak abesbatzen kontzertua
14:30 // Adineko Pertsonen XXVII. Eguna ospatzeko bazkaria
Dantzaldia, Iñaki Oteguiren eskutik
14:30 // Herri-bazkaria
18:00-20:00 // Bolo-jokoa
18:30-17:00 // Pilota-jaialdia
19:00 // Erromeria Patxi eta Konpainiarekin
21:00 // Odolki-jana

AIARAKO JAIAK 2018

APIRILAK 27,28 eta 29



Txapelak eta bordatuak – Trofeoak – Kopak – Pin-ak – Plakak – Grabatuak
Taillaketak – Estanpazioak – Giltzatak – Kamisetak – Promozio artikulak
– Merchandising – Sari instituzionalak

Idelak gauzatzen ditugu

Bulegoa-erakusketa:
Alda. Urkijo, 88 - 2º
48013 Bilbao - Bizkaia
Tel: 94 442 22 24
Fax: 94 439 97 69
kopas@kopas.es



www.kopas.es



Fabrika:
Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Araba
Tel: 945 39 94 05
Fax: 945 39 94 29
fabrica@kopas.es

**GAUEKO
AUTOBUSAK**

OSTIRALA 27 / LARUNBATA 28

ETORRERA:	ARTZINIEGA 20:30	LANTENO 20:40	MENARAGAI 20:45	IBAGUEN 20:55	ARESPALDITZA 21:00
	LAUDIO 21:20	LUIAONDO 21:30	AMURRIO 21:40	MURGA 21:50	ARESPALDITZA 22:00
ITZULERA:	ARESPALDITZA 4:00	IBAGUEN 4:10	MENAGARAI 4:20	LANTENO 4:30	ARTZINIEGA 4:40
	ARESPALDITZA 5:00	MURGA 5:10	AMURRIO 5:20	LUIAONDO 5:30	LAUDIO 5:40



AMURRIO

Guda Dantza, Governors, Astarte

San Jose Jaietako izar

Musika eskaintza oparoa egongo da Amurrioko San Jose auzoko jaietan. Sei talde igoko dira guztira oholtzara: Guda dantza, Governors, Dj Ruba, Astarte, Los Vecinos del Callejón eta Dj Markelin. Gaztetxean, aldiz, Tinko, Dantzeta Jarrai, Bad Sound System eta Aiaraldeko Soinu Sistema arituko dira jaia girotzen.



Governors taldeak joko du larunbatean, besteak beste. **Zuriñe Alava**



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Datorren asteburuan ospatuko dira Amurrioko San Jose auzoko jaiak. Kontzertuek eta dantza erakustaldiek izango dute protagonismo gehiena egitarauan. Izan ere, gauez zein egunez hamaika ekitaldi antolatu dituzte.

Apirilaren 28an hasiko dituzte jaiak, 19:00etan jaurtita txupinazoa. 23:00etan oholtzaratuko dira Guda dantza, Governors

eta Dj Ruba. Ohi bezala, astelehenean ere-apirilak 30- egongo dira kontzertuak. 22:00etatik aurrera joko dute Astarte, Los vecinos del Callejón eta Dj Markelinek.

Txirindularitza txapelketa
Maiatzak 1 izango da auzoko azken egun nagusia. 10:30ean San Jose Saria jokatuko da, txirindulari kadetei zuzendua. 11:00etan La Fanfarre Tabarraren kalejira egongo da, eta 12:00etan meza. Arratsaldera-

ko iragarri dituzte umeentzako jolasak, txokolatada, barraketa-rako fitxen eskaintza eta disko-festa.

Amurrioko Gaztetxea auzoaren erdian kokatua dagoela baliatuta, egitarau propioa prestatu du Gazte Asanbladak jaietarako. Larunbatean-apirilak 28- parrillada egingo dute 20:00etan, eta Tinko eta Dantzeta Jarrai taldeak egongo dira gero. Hilaren 30ean, aldiz, Bad Sound Systemek eta Aiaraldeko Soinu Sistemak girotuko dute Gaztetxea.

04.28 Larunbata

19:00 // Txupinazoa
20:00 // Parrillada
Gaztetxean
23:00 // Kontzertuak:
Guda dantza, Governors
eta DJ Ruba



00:00 // Kontzertuak
Gaztetxean: Tinko eta
Dantzeta jarrai

04.29 Igandea

Poteoa txosnan eta
tabernetan
14:00 // Babarrun jana
herrikoia. Tikitak auzoko
taberna eta dendetan
salgai 7 euroren truke
18:00 // Sevillanak
20:00 // Dantzatzeoak
txumasketarekin



04.30 Astelehena

22:00 // Kontzertuak: Astarte,
Los vecinos del callejón eta
DJ Markelin
23:30 // Aiaraldeko Soinu
Sistema eta Bad Sound
System, Gaztetxean



Bidean Produktzioak

05.01 Asteartea

10:30-11:00 // Kadeteen
txirindularitza lasterketa
11:00 // Kalejira La Fanfarre
Tabarrarekin
12:00 // Meza
17:00 // Umeentzako jolasak

ARETXONDO TABERNA
(Errotanda alboan)

20:00etatik aurrera bokata egin berriak
Larunbat eta igandean zabalik, ordutegi jarraia



945 39 35 95




BAR SAN JOSÉ

GARAGARDOAK, ARDOAK ETA PINTXOAK

Jai Zoriontsuak!

LARUNBAT ETA ASTELEHENEAN:
Bokata egin berriak
(20:00-01:00)

Elizaren alboan T. 945 89 90 65



CARNICERIA S. JOSÉ

*Gure berezitasuna,
tokiko haragi freskoak*

Ondo pasa jaietan!

Zabaleko, 8
01470 - AMURRIO (Araba)
(945) 89 00 31

ARENALDE
MAITEA
JAIETXEA



Ondo pasa jaietan!

Arenalde kalea 1, AMURRIO
www.arenaldemaitea.com
945 89 24 26

**SAN JOSE JAIK
AMURRIO 2018**



APIRILAK
28, 29, 30
+
MAIATZAK 1

SAN JOSE Jai batzordea